

AURKEZPENA

Ikastaroa Arkeologiako ikasleeri arkeologia-indusketa baten prozesuan beharrezkoak diren ezagutza teoriko eta teknikoak ematearren bideratuta dago. Helburua ikasleek jasotako hezkuntza akademikoa osatzean datza, bai indusketa eta prospekzio lanekin lotutako metodologia eta teknikak, eta bai dokumentazio arkeologikoa eta materialen azterketa, landa-lana eta ikasketa teorikoak uztartuz eta lortutako ezagueren osagarri izanez.

INFORMAZIO OROKORRA

- Lekua: San Adrian-Lizarrateko Pasabidea
- Ostatua: San Adriango Aterpetxea (Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorra)
- Iraupena: abuztuaren 3tik 29ra
- Tokiak: 20
- Matrikulatze epea: uztailak 17ra arte (izen-emate ordena kontuan edukiko da)
- Salneurria*: 575 € (Aranzadiko bazkide) 650 € (orokorra)

*ostatua, mantenua, saio praktiko eta teorikoak, museoetarako sarrerak, istripu-asegurua eta erantzunkizun zibila barne.

HARREMANETARAKO

Aranzadi Zientzia Elkartea
Zorroagagaina, 11
20014 Donostia
Tel.: 943 466142
Fax 943 455811
idazkaritza@aranzadi.eus
www.aranzadi.eus

Informazio guztia
esteka honetan
kontsultatu daiteke

BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



ZEGAMAKO
UDALA



ARKEO- LOGIA IKASTARO PRAKTI- KOA

INDUSKETA ARKEOLOGIKOAK
SAN ADRIAN-LIZARRATE
HAITZULOKO AZTARNATEGI
PREHISTORIKO ETA HISTORIKOAN

ABUZTUA 2015



EDUKIA

Ikastaroa bi arlotan egituratu da: indusketa ikasketa praktikoak, materialak prozesatu eta erregistro arkeologikoarekin batera; eta ikasketa teorikoak lau modulutan zentratuta, arkeologia-prospekzioa eta indusketaren oinarri teorikoak, arkeologia multzoen azterketa, material biotikoen ikerlana eta metaketa arkeologikoen analisia.

Prestakuntza arkeologia ondarea berreskuratu eta zabaldu dituen Gipuzkoako monumentu eta museo jakin batzuen bisitaldiekin osatuko da: beste batzuen artean Igartzako monumento-multzoa (Beasain), Igartubeiti museo-baserria (Ezkio-ltxaso), Ekainberri (Ekain haitzuloaren erreplika, Zestoa) edo Oiasso erromatar museoa (Irun) nabarmenduz.

212 orduko ikastaroa da irakasle adituen parte-hartzearekin, haien artean unibertsitateko akademikoak eta gai desberdinetan berezitutako profesionalak daudelarik.



AZTARNAK

San Adriango barrunbea edo tunela 2008. urtetik indusketa prozesuan aurkitzen den antzinatik oso ezaguna den lekua da. Erdi Arotik Gaztela Europarekin lotzen zuen komunikabide gune garrantzitsu bat izan da, hori dela eta garai desberdinetako aztarna arkeologikoak aurkitu dira, hala nola gaztelua, basiliza, mikelete-postua, ostatua, galtzada eta beste eraikin batzuk gaur egun arte iraun dutenak.

Egitura hauen azpitik historiaurreko maila desberdinak aurkitu dira ere, Brontze Arokoa, Epipaleolitikoa eta Madeleine aldikoa, gizakien bizimodua 1000 metroko altitudetan eta gaurkoa baino garai askoz hotzagoetan nolakoa zen erakusten dutenak.

